

euskara ikasten ari
garenon aldizkaria



**Jokin
Etcheverria:**
"Bilbok eskaini dit
aukera nire euskal
nortasuna garatzeko"

Gaurgero:

Jone Uriaren lehenengo
Bertsolari Txapelketa
Nagusia

Gaurgero:

Bakarrik ala
bikotekidearekin
egiten duzu lo?

Bizilege

apartak:

50 urte bete ditu
Nikolas Txikik

Ostutako

pasarteak:

Kirmen Uriberen
Bilbao-New York-Bilbao



1B Ameriketako Estatu Batuetatik etorri berri, Bilbon egin dugu **hitzordua** Jokin Etcheverriarekin. *Chiloe* telebista-programako kapitulu berri bat grabatzen izan da, besteak beste Pittsburgh hirian, eta laster ETBn izango dugu ikusgai.

Chiloe eta *BURP! Bask Underground Report* saioen **aurkezleak** aurten bete ditu 30 urte eta **antzerki** zein komertzio-eskoletan egin ditu ikasketak. Bilboko Mesedeetako kaian bizi da, ingurune zoragarrian. **Pare-parean** ditu Erriberako azoka eta Bilbo Zaharra. "Ederra da ikuspegia, baina laster beste etxe batera joan beharra izango dut". Orain dela lau urte **iritsi** zen Bizkaiko hiriburura Donibane Lohitzunetik, eta ordutik ezagun egin da *Chiloe* eta *BURP! Bask Underground Report* saioekin. *My Jok World* S.L enpresa sortu zuen Maiana Agorrobeyekin eta telebista-**saioak ekoizteaz** gainera, elastikoak ere saltzen dituzte Euskal Herrian, Parisen, Bartzelonan eta beste zenbait hiriburutan. Bizitzaz, erronkez eta gaur egungo lanez hitz egin dugu Jokin Etcheverriarekin.

JOKIN

ETCHEVERRIA:

"Bilbok eskaini dit aukera nire euskal nortasuna garatzeko"

Testua: Gorka Etxabe Otadui (Arteman Komunikazioa)
Argazkiak: Josexo Arantzabal

Donibane Lohitzunetik Bilbora etorri zinen orain lau urte. Zergatik Bilbora?

Ikasketak egin nituen Bordelen eta enpresa bat sortu nuen *My Jok World* izenekoa. Enpresa Iparraldean sortu banuen ere, Bilbon enpresarekin jarraitzea erabaki nuen. Izan ere, Frantzia erabat zentralista da, Parisen dago guztia, eta Paristik kanpo ezer gutxi aurki dezakezu. Bilbon aukera profesional zein pertsonal askoz handiagoak aurkitu ditut. Hemen aukera dut euskaraz proiektuak aurrera ateratzeko, eta nire **nortasuna** garatzeko **askoz leku aproposagoa** da Bilbo Paris baino. Ni euskalduna naiz, eta euskaraz garatu nahi ditut nire proiektuak. Ni mugakoa naiz, europarra sentitzen naiz eta nortasun ireki hori euskararen eskutik garatu nahi izan dut.

Hegoaldearen eta Iparraldearen artean alderik atzematen al duzu?

Euskal nortasuna garatzeko askoz aukera gehiago ditugu Hegoaldean, eta hori hemengook ez duzue baloratzen. Ni Iparraldetik nator eta han oso zaila da euskal nortasuna garatzea, euskaraz lan egitea, eta hori da **igarri** dudan desberdintasunik garrantzitsuena. Bizitza soziala ere erabat desberdina da. Iparraldean Baiona da erreferentziatzeko metropolia eta **soilik** hogeita hamar mila biztanle ditu. Hemen **sekulako bizitza** dago. Gainera, Iparraldeko folkloreakin **nazkatuta** nengoen. Ikurrina, lauburua... horiek euskal folkloreakin **erakusle** dira Iparraldean, baina **funtsean** ez dute egiazko sentimendurik erakusten. Hala ere, segitzen dut Iparraldearekin harremana izaten, familia han baitut. Gainera, abenduan zine jaialdi bat egingo dugu, **BURP!** programarekin zerikusia izango duena.

"Ni mugakoa naiz, europarra sentitzen naiz eta nortasun ireki hori euskararen eskutik garatu nahi izan dut".

Komertzio-ikasketak egin zenituen, baina arlo profesionalean antzerki arloan murgildu zara.

Bordelen komertzio-ikasketak egin banituen ere, nik txikitatik antzerkia egin izan dut. Gaur egun egiten dudana ere **antzez-lana** da. Beti egin izan ditut ikuskizun txikiak eta gaur egun ere horretan **dihardut**.

Dena dela, bi arloak garatu dituzu. Enpresaren sorkuntzarekin, komertzioa eta ekoizten dituzuen produktuekin, antzerkia, ez al da hala?

Maiana Agorrobey marrazkilariak eta nik neuk sortu genuen *My Jok World* enpresa. Gure ideia zen elkarrekin lan egitea, eta arte grafikoak eta antzerkia **uztartzea**. Gure enpresa sortu genuen, besteak beste, askatasun handiagoa edukitzeko lan egiterakoan. Gazteak gara eta ez dugu beste konpromisorik, eta horrexegatik **murgildu** ginen proiektu honetan. Komunikazio-zerbitzuak eskaintzen ditugu, ikuskizunak antolatzen ditugu eta beti egin ditugu elastikoak. Gure lehen elastikoak eskuz eginikoak ziren, seri-

grafiarik gabekoak, eta gure enpresaren nortasuna elastiko horietan islatzen zen. Gaur egun, Euskal Herrian, Parisen,artzelotan eta Madrilen saltzen ditugu.

"Bilbon sekulako bizitza dago. Gainera, Iparraldeko folkloreakin nazkatuta nengoen".

ANTZERKI.- Teatro. Théâtre.

ANTZEZLAN.- Antzezleak antzokian jokatzen duen lana. *Obra de teatro*. Œuvre de théâtre.

ASKOZ (ERE) LEKU APROPOSAGO.- Askoz ere leku egokiagoa, hobe. *Un sitio mucho más idóneo*.

Un lieu beaucoup plus approprié/e.

AURKEZLE.- Aurkezten duena. *Presentador/a*. Présentateur/trice.

DIHARDUT.- Jardun aditzaren indikatiboko orainaldiaren 1go pertsona, ari naiz. *Estoy desempeñando, haciendo, realizando...* Agir, faire.

ERAKUSLE.- Ikur. *Signo, símbolo*. Symbole.

FUNTSEAN.- Batez ere. *Fundamentalmente, básicamente; en resumidas cuentas, al fin y al cabo*. En somme.

HITZORDU.- Elkarrekin geratzeko adostutako ordua eta lekua. *Cita*. Rendez-vous.

IGARRI.- Nabari izan, nabaritu, antzeman, igarri, sumatu. *Acertar, adivinar; darse cuenta, notar*. Se rendre compte.

IRITSI.- Ailegatu. *Llegar*. Arriver.

MURGILDU.- Lan bati ekin. *Sumergir (se), abstraer (se), enfrascar (se) en un trabajo*. S'immerger.

NAZKATUTA.- Asper eginda, nazka-nazka eginda egon. *Estar hartola, hastiada, cansado/a de*. Ennuyé/e.

NORTASUN.- Identitatea. *Identidad*. Identité.


PARE-PAREAN.- Aurrez aurre. *Delante*. En face.

SAIOAK EKOIZTU.- Saioak sortu, egin. *Producir programas (de televisión)*. Produire émissions (de télévision).

SEKULAKO BIZITZA.- Bizitza ezin hobe, oso ona, ikaragarria. *Excelente, magnífica, estupenda*. Excellent/e.

SOILIK.- Bakarrik. *Solamente, únicamente, sólo*. Seulement.

UZTARTU.- Elkartu, bat egi. *Juntar, unir*. Réunir.





BURP! saioa ere egiten duzue. Saio alternatiboa da, ezta? *BURP!* saioak hankaz gora jartzen ditu Euskal Herriko zenbait tradizio. **Entsegurik** egin gabe, zuzenean grabatzen genituen kapituluak. Inprobisazioan oinarrituta, era naturalean. Euskarentzat ona da, gure kulturaren beste **ikuspegi** bat ematen digulako. Uste dut nortasun handiko saioa dela, eta uste dut gure errealitate bereziaren erakusle bilakatu dela *BURP!*.

Zuk oso estilo berezia duzu, Jokin, bai *BURP!* saioan eta baita *Chiloe* telebista-programan ere.

Hala uste al duzu? Egia da *Chiloe*n pertsonaia bat sortzea erabaki genuela eta bidaiak era ezberdinean eta umoretsuan kontatzea. Gure helburua da umorearen bitartez mundua ezagutzera ematea: etnozentrismoa **baztertzen** saiatzeko gara. Bidaiekin gauza asko ikasi ditut baina, batez ere, Euskal Herria hobeto ezagutzeko gogoia eman dit *Chiloe*k. Abuztuan Araian (Araba) izan nintzen lau egunez, eta horixe izan da urteko nire bidaiarik onena. Mendian ibili nintzen, zaldian, eta lasaitasunaz gozatu nintzen.

Ez al du *BURP!* saioak estilo arriskutsuegia?

Egia da *BURP!* saioak estilo **arriskutsua** duela, baina uste dut Euskal Herrian horrelako saio bat falta zela gazteentzat. **Dagoeneko** 43 saio egin ditugu eta ETB3 katean denboraldi berria hasi dugu urrian. Pozik gaude Euskal Telebistan konfiantza eman digutelako eta momentuz oso gustura daude egiten dugun saioarekin. Guk ekoizten dugu, zuzendari, gidoiari, sortzaile-lana egiten dugu *BURP!* saioan. Estilo modernoa du, estetika unibertsala, eta guretzat apustu bat da.

Zein dira etorkizuneko zure erronka edo proiektuak?

Gure asmoa da *BURP!* eta *Chiloe* saioak egiten jarraitzea, baina aldi berean gauza berriak proposatu nahi ditugu jendea **asper-tu** ez dadin. **Berritasunak** ezarriko dizkiegu gure proiektuei. Gustatuko litzaidake telebista zein bideogintza arloetan lanean segitzea. Errealizazioa eta **gidoigintza** oso gustuko ditut eta etorkizunean saio bat zuzentzea gustatuko litzaidake, eta kamera aurretik **aldentzea**. Era berean, antzerki arloan murgiltzea desio dut, baina oraindik ez dut proiektu konkreturik.

Teknologia berriak ere oso gustuko dituzu.

Ez pentsa. Facebook erabiltzen dut eta Youtuben daude ikusgai gure bideoak. Web gunea ere badut, www.myjok.com eta bertan daude gure produktuak. Baina nik nahiago dut gauzak zuzentzea eta sortzaile-lana egitea. *BURP!* saioan dozena bat lagunek baino gehiagok egiten dugu lan eta beste batzuek dute teknologia berrien ardura. Gauzak aldatu egin dira eta gaur egun ezagutzen dugun telebista ere aldatu egingo da eta ziur naiz aldaketa horiek **irentsi** egingo gaituztela. Etengabe aldatzen ari garela uste dut eta horrek ez dit beldurrik ematen. ■

ALDENDU.- Urrutiratu, joan. *Alejar (se), apartar (se).* S'éloigner.

ARRISKUTSU.- Arriskudun. *Peligroso/a.* Dangereux/euse.

ASPERTU.- Asper egin. *Aburrirse.* S'ennuier.

BAZTERTU.- Bazterrean, alboan utzi. *Arrinconar.* Laisser de côté.

BERRITASUN.- *Novedad.* Nouveauté.

DAGOENKO.- Ya. Déjà.

ENTSEGU.- Proba. *Ensayo.* Répétition.

GIDOIGINTZA.- Gidoiak idaztearen ofizioa.

Oficio del guionista. Métier du metteur en scène.

IKUSPEGI.- Ikusteko modua. *Punto de vista.* Point de vue.

IRENTSI.- *Tragar.* Avaler.

"Gaur egun ezagutzen dugun telebista ere aldatu egingo da eta ziur naiz aldaketa horiek irentsi egingo gaituztela".



"*BURP!* saioak estilo modernoa du, estetika unibertsala, eta guretzat apustu bat da".

1A Elkarriketa irakurri ondoren, esaguzu jaso ditugun ideia hauek **zuzenak** ala **okerrak** diren:

1. Bai Parisen eta baita Bilbon ere aukera profesional handiak aurkitu ditu Jokinek.
2. Jokinen iritziz Iparraldean nekez egin daiteke euskaraz lanik.
3. Antzerkia txikitatik izan du gustuko.
4. Maiana Agorrobay marrazkilariarekin batera eraiki du *My Jok World* enpresa.
5. Enpresak konpromiso ugari sortu dizkie eta horregatik deseroso daude.
6. *BURP!* saioak orain arteko moldeak hautsi ditu.
7. *Chiloe*k munduan barrena bidaiatzeko aukera eman dio.
8. Beren asmoa da *BURP!!* eta *Chiloe* saioak egiten jarraitzea, ez dute jendea aspertzeko beldurrik.

Zalantzarik sortu bazaizu, jo 45. orrialdera.